

TXORIERRIKO “BASERRI ANTZOKIA”

EUSKAL HERRIAN LEHENA



*Txoriak bere habia,
guk Baseri Antzokia.*

1.- EURT DAGIGUN!

Hor zabiltzie Anasetik Kaifasera. Halaxe erantzuten die Gabriel Etxebarria zamudioztarrak ezbaian diharduten pertsona eta taldeei.

Euskal Herrian zabalean harturik ere, balia gaitzke esaera horrekin, politikariek Anasetik Kaifasera erabili ohi dituztelako herritarrak.

Aipagai dugun antolaketa honen tankerakorik nekez buru liteke Anasetik Kaifasera jokaturik, ni Altzuren alde ni, aldiz, Jatsuren jokaturik.

XXI mendeko txorierritarrek, oraingoan, gurago izan dute Butroikoen eta Ganboatarren paradigma ordezkatu.

SINERGIA da, agian, asmo honetako berba giltza. Dakigu-nez, elementu bi edo gehiago sinergikoki batzen direnean, on-

dorioa ez da bien suma, ezpada, bien gehiketa baino emaitza gehiago, handiagoa lortzea da sinergia; sinergiak mailarik go-renera eroaten ditu talde edo elkarte biren balioak, Altzutarrenak eta Jatsukoenak.

Denboraren orratz txikia izango da eginaren lekuko onesgarri edo gaitzesle. Hasieratik gaur arteko epeari so eginik, badirudi egitasmoak norabide egokia hartu duela zeren, bai erai-kuntza konpainia ahaltsuak nahiz sukaldari ospetsuak hurbildu baitira jakin min handiz guregana.

2.- HIZKUNTZARAKO PARAMETROAK

Abiapuntua Euskararen Legeak hogeita bost urte bete zitue-nekoa da, hasi ere, irakaskuntzaren arloarekin lotura estua duen euskaltzale multzoa tarteko izanik hasi zen-eta. Hausnar-ketarako, geure urteetako eskarmentua, eguneroko jokabidea eta ekintzaz ekintzako eragile lanaz gainera, besteak beste, Euskaltzaindiak orain argitaraturiko liburua hartu zen. Gogora dezagun, egunotan liburu moldez argitaratu dena, guk orduko XI. Jagon Jardunaldietan jaso genuela, hau da, eskolak euskararen irakaskuntzan burutu duen lanaren ebaluaketa. Testu horrek era honetako aipuak dakartza:

Guztiak bat datoz puntu zentrolean. Besterik gustatuko ba-litzaigu ere eskola ez da, gurea bezain abuldurik dauden hiz-kuntzak indarberritzeko orduan, benetako motor abalguzti-dun. Eskolak ezin du, bere baitarik eta bere kabuz, belaunaldi berrien erabateko elebitasuna (are nekezago gizartearen luze-zabaleko mintzaldaketa) lortu. Ezinbesteko (gurea bezalako kontestu modernizatuetan ezinbesteko) lagungarria da eskola. Ezinbesteko lagungarria bai, baina hizkuntza abula indarber-ritzeko prozesu osoaren primum mobile ez da eskola. Hori da entenditu eta onartzea izugarri kostatzen zaiguna. Baina hala dira kontuak, bai hemen eta bai munduko lau hegaletan, gu-rea bezalako kontestuetan. Euskaldunek euskaldunekin euska-

raz (euskara hutsean edo batez ere euskaraz) jarduteko esparruak, barreman-sareak eta situazio komunikatiboak ez dira azken mende-laurdenean nabarmenki indartu. Izatekotan, abuldu egin dira.

Lehendabizi ikasi, gero erabili” paradigmaren mende gauden artean jai dugu. Erabiliz ikasten da, hemen eta nonahi. Euskaldunek euskaldunekin euskaraz egiten duten jardun-guneak, barreman-sareak eta mintzagaiak indartzen ez diren artean, eta erdaldunek (tarrean etorkinek) euskararen beharra edo mesedea nabaritzen ez duten artean, nekez (estatistikoki, ez kasu bakanetan, nekez) egingo dute aparteko saio gogorrik euskara ondo ikasi eta jardun-gune zein barreman-sare horietan euskaraz jarduteko.¹

Gurpilak arterik biraka zebilzkion gurdira 2010eko ekainaren 28an igo nuen, Andres Urrutia notarioaren bulegoan batu ginenean. Hartan ere, bero handiko egunean, 30º asko baita San Juan surik handienen egunetarako ere, eguerdiko 13:00etan. Hantxe sinatu genuen Baserri Antzokia Fundazioaren sorrera Txorierriko udaletako hiru ordezkariak eta herritarren arteko lau euskaltzalek.

Une horretara heltzeko, zenbat batzar, zenbat itzulpen –euskaratik erdarara- zenbat egotaldi eta jatordu! Sinesturik nago, euskaltzaletasunaren motor barik ezinezkoa dela halako adorea eta doako beharra. Zer edo zergatik da euskarazko taldeetatik erne proiektu guztia. Oinarrian, proiektu guztirako Euskarako taldeak eta euskaltzale sutsuak topatuko ditugu: Tximintx, Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, baita Mankomunitatea eta, batik bat Derioko udala, Aiantza jauna. Ondorik etorri ziren erakundeak nahiz herrietako taldeak.

¹ Mikel Zalvide 148 (Euskararen Legeak hogeita bost urte. Eskola alorreko bilakaera: balioespen-saioa. Mikel Zalvide. 2007ko azaroaren 23a. Euskaltzaindiaren XI. Jagon-jardunaldia. Orain liburu formatean: *Euskararen legeak hogeita bost urte. Eskola alorreko bilakaera: balioespen saioa*. Mikel Zalvidereña. Jagon Saila, Euskaltzaindia, 2010.

Guztiarekin ere, ezin aitortu barik lagako dut pertsonen garrantzia, taldea osatzen dutenena: Gorka Karro, Aitor Badaia, Zuriñe Argatxa, Gabriel Etxebarria, Borja Gonzalez Bilbao, Juan Luis Goikoetxea, Txaber Gandiaga, Kepa Larrabeiti, Fernando Olabarrieta, Iñaki Astorkiza eta euskarazko taleetakoak, batez ere, gidari denarena, Xabier Goienetxerena, alegia, sasoiari sasoiko erronkari erantzuteko gaitasunaren jabe dena. Leaderrak berez behar du gertu agertu jendaldearen txaloak entzuteko zein itsasoaren zaplada hartzeko, nekez ibiliko baita ohoretik ohorera, ospearen gailurrik gailurrera.

3.- BASERRI ANTZOKIA FUNDAZIORAKO LURRA ETA INGURUMARI EKONOMIKO SOZIALA


Harridurazko aurpegikerak jartzen dituzte beste eskualde batzuetako euskal taldeek kontatzen diegunean, lortu dugula Txorierriko Mankomunitatea egitasmo honetan inplikatzeara. Eskaini ere, Derioko udalak, Lander Aiartza buru duenak, eskaini zuen ehun urterako eraikuntza lurra. Harrezkero, lur publikoari diru pribatua batu behar izan zaio, lortuz, interes publikoa eta pribatua elkar daitezten. Horretarako Herri Urrats baino AEKko korrika lasterketa burutu behar izan da ezen, 1,5 milioi euro beharko baitira lortu, beti ere, lurrari 600.000 €ko balioa ipinirik.

Dirua bil dezagun, era askotako kideak elkartu beharko dira: urtero 40€ ordaintzen dituztenak; 150€ pagatzen dituztenak; 300€koak edo 3.000€koak, BBK, Eroski eta tankera horretakoak. Zeregin horretan badihardu hiru hilez Alazne Legarreta komertzialak.

Eraikuntzak, bestalde, ideiarda egin gaitezen, 500 m² edukiko ditu plantan, gehi 50 m²ko lau txoko, kanpoalde zabalarekin batera. Aipatua gauzatzeko bidean, proiektua osatuta dago eta estudio geologikoak-eta doituta daude.

Orain hile batzuk abian den marketing plangintzan - ZU BARIK EZ GINEN, ZEURI ESKER, BAGARA lelopekoan-, egitasmoa gizarteratzekoan, Ales Matias BEHARGINTZakoak eta profesional taldeek aspalditxoan biribildu zuten Negozio-planek, hots, Bideragarritasun-planek, garbi erakusten dute, Base-ri Antzokia lako erakundeetan, alde kultural defizitariora babeteko, alde komertzialaz baliatu beharra dagoela. Helburu horretarako, inguruak ere lagundu behar du: Txorierrin, 18.000 biztanle baino bizi ez badira ere, 2.700 enpresa inguruk du kokalekua, tabernak zein dendak barru direla. Eskualdeko lurretan dute egoitza, bestalde, aireportuak, hilerriak zein Bilboren zerbitzura diren errepideak.

Komunikazio-planak ere fase asko ditu honezkero bete. Amaitu dira herriz herriko aurkezpenak, Txorierriko herrietariko bakoitzean 60ren bat entzule batu izan dira; Hamaika telebistan, ETB1en eta Bizkaia Irratian ere iragarri da egitasmoa, baita Txorierriko AIKOR aldizkarian ere; jokabide beretsua erabili da tabernetarako diptiko eta triptikoetan edo lantegietako fitxetan, bisita-txarteletan eta karpetetan.



4.- BASERRI ANTZOKIAREN ZEREGINA

Txorierrirako proposatzen dugun antzokiak, bertoko base-riaren itxura eta karakterizazioa izango du, eta arkitektonikoki ere antzinako euskal kulturaren agertokia izango litzateke.

Txorierrin Euskara eta euskal kultura sustatzea, euskal giroa berpiztea, ohiturak eta ekanduak ezagutaraztea, kultur ekintza euskaldunak bultzatzea, euskal elkarte eta euskaltzale guztien indarrak batzea eta euskararen erabilera sendotzea eta areago-tzea du xede; horretarako, kalitate handiko ostalaritza, dibulga-zioa eta kultur zerbitzuak eskainiko dituen “baserri” itxurako gune bat sortuko da.

Baserria Derioko antzinako seminarioaren atzean eraiki-ko da, Bizkaiko Parke Teknologikoaren gunean. Bertan ki-rol eta kultur ekintzak egingo dira, baita Txorierriko ortua-riak ezagutaraziko ere, txakolina, besteak beste. Horretara-ko, eszenatokia izango du eta aurkezpenak, lehiaketak, eta hainbat ekintza zein ekintza aurrera eramateko guneak izan-go ditu. Era beran, barra bat, txokoak eta euskal sukaldari-tzaren hainbat plater tipiko dastatzeko jatetxea izango du. Ekintza hauek guztiak gure kulturaren beste osagaiekin la-gunduta egongo dira.

Modu honetan aisiarako eta kulturarako azpiegitura handi batekin hornituko da Txorierrri. Gainera, eraikin jasangarria izango da eta energia berriztagarriak erabiliko ditu: eguzki-e-nergia, eta energia geotermikoa.

5.- KOKALEKUA

Arterago iradoki bezala, TXORIERRIKO “BASERRI ANTZOKIA” proiektua *TOTOAN Txorierriko Euskara Elkar-teen Federazioaren* baitan sortzen da 2008 urtean, zuzendari-tza batzordearen proposamenez. Kultur eta enpresa proiektua izan gura du, euskara eta euskal kultura eskualdeko herri guztietan (Larrabetzu, Lezama, Zamudio, Derio, Sondika eta

Loiun) eta inguruan bultzatzeko asmoz. *Totoan Federazioaren* inizatiba bada ere, Txorierriko eta inguruko euskaltzale guztiei opetsiko zaie proiektuan parte hartzeko gonbita, denon indarrarekin askoz ere aberatsagoa eta eraginkorragoa izango delakoan.

Proiektuak suposatzen du, aurrerago zehatzago azalduko den bezala, Derioko lurretan, Bizkaiko Teknologi Parkearen barruan, taberna-jatetxe-antzoki tankerako azpiegitura eraikitzea bertan kultur eta enpresa ekintzak burutu ahal izateko.

Txorierriko herrien artean, Derio aukeratu da proiektua aurrera eramateko baldintzarik egokienak eskaintzen dituen udalerrria delako eta Bizkaiko Parke Teknologikoan kokatuta egoteak berebiziko garrantzia duelako. Hala ere, Txorierriko herri eta herritar guztien kultur eta aisialdi harremanetarako elkargune bokazioarekin jaio gura du.

6.- BASERRIAREN ORIENTAZIOA

Haren etxaurrea Txorierriko eta inguruko euskaltzaleei begira egongo bada ere, gura duenak parte hartuko du proiektu honetan. Horretarako, zabalduko dira bideak haren inplementatze bidean (partaidetza proiektuaren erredakzioan, kudeaketan, sostengu ekonomikoan, funtzionamenduan...).

BANaren, Baserri Antzokiaren xedeetariko bat ahalik eta jende gehien proiektuaren partaide egitea izango da, bai haren eratze prozesuan baita, batez ere, beraren garabidean.

Ideologia politiko konkretorik gabea izango da, euskalduntasuna (euskara eta euskal kultura) ardatz bakarra izanik.

7.- ZIMENDUAK

– Lehenengo helburua: euskara eta euskal kultura sustatzea izango du. Helburu nagusia den hau betetzeko, Antzo-

kian bertan zein kanpoko inguruko lurretan kultur eta kirol ekitaldiak antolatuko dira. Esan bezala, ekitaldian euskarak eta euskal kulturak izango du nagusitasuna. Bestalde, ekitaldian Txorierriko kultur/kirol taldeek eta banakoek izango dute lehentasuna.

– Bigarren helburua: Txorierriko eta inguruko euskaltzaleen topaleku bihurtzea. Antolatuko diren ekitaldien bitartez edo/ta, beste barik, aisialdian pertsonen arteko topagune bezala, eskualdean giro euskalduneari harreman sozialak sustatzeko zentro bihurtu gura du. Ildo horretatik, arreta berezia jarriko da Txorierriko eta inguruko gazteentzako giro euskalduneko topaleku bihurtzeko.

– Hirugarren helburua: ostalaritzako eta euskal kulturaren eta kirolaren ekintzen kudeaketarako enpresa errentagarria sortzea. Aurreko helburuak bete ahal izateko eta proiektuaren oinarri ekonomiko gisa, ostalaritzako eta kultura zein kirol ebentuen kudeaketarako enpresa errentagarria eta autofinantzatua sortuko da. Bertan taberna eta jate-txe zerbitzuak eskainiko dira, astegunetako eguneko menuak inguruko enpresetako langileentzako, asteburuko gazteentzako jateko merkeak eta aproposak, taldeentzako menu bereziak edota ospakizunetarako jatorduak eskainiz, beti ere gure kirolaren eta kulturaren osagaiekin atonduak. Helburu hau betetzerakoan kalitatezko eta bertoko produktuek izango dute lehentasuna.

– Laugarren helburua: irabazi ekonomikoak kudeatzea. Aurreko helburuan aipatu den bezala, enpresa errentagarria eta autofinantzatua lortu ondoren, irabaziak honela kudeatuko dira: proiektuaren kostuak eta ondoriozko zorrak kitatuz joanik, enpresaren mantentze eta funtzionamendu gastuei aurre egin eta gainontzeko irabaziak kultur eta kirol ekitaldian berrinbertituko dira.

Azkenik, helburuok betetzen diren heinean, euskal kulturako eta giro euskalduneko aisialdirako Txorierriko eta inguruko enreferentziatzko topalekua izango da.

8.- ZUTABEAK

– Artikulu honetako lehen paragrafoetara bihurtuz, euskara eta euskal kultura sustatzeko instituzioek irakaskuntzan egindako lanari segida emateko, inizatiba pribatuak euskararen erabilera bultzatuz, euskal guneak sortzeari ekin nahi zaio. Horretan, eta aisiari dagokionez, Bilboko Kafe Antzokiak itzelezko garrantzia izan zuen. Haren ostean Ondarroakoa, Donostiakoa, Durangokoa, Elgetakoa eta abar etorri ziren.

Gaur egun, euskararen erabilera bermatzeko eta herri zein eskualde orok dituen erroak eta sustraiak ahalik eta ondoen mantentzeko, ezinbestekotzat jotzen da euskal guneak sortzea eta sortu ere, bakoitzaren bizilekuaren inguruan, osterantzean gune hauen gabeziak hiri handietara joatea dakar eta berarekin batera herrietako jendearen deserrotzea eta lekuko kulturaren galera.

– Egun ez dago Txorierri osoan euskara eta euskal kultura agerrarazteko eta bultzatzeko kafetegia eta kultur ekitaldiak eskaintzeko inolako lekurik.

– Txorierriko biztanleak ez ezik Txorierriko langileak ere kontuan hartuko ditu proiektu honek. Helburu hori bete dadin, arlo honetan inguruko enpresei zerbitzua eskainiko zaie kultur eta aisialdia esparruetan. Horretarako:

- Lankidetzak egingo dira Txorierriko enpresekin.
- Txorierri (Parke Teknologikora, aireportura,...) datozen atzerritarrei euskal kultura (dantzak, musika, herri-kirolak, bertsolaritza...) erakutsiko eta azalduko zaie.

- Txorierriko lehenengo sektorea (txakolina, ortuariak, abereak...) publikoari agerraraziko zaio.
- Txorierriko enpresen teknologia publikoari erakutsiko zaio.

– Baserri Antzoki honen helburua ez da Txorierriko udalek eskaintzen dituzten kultur ekitaldiak ordezkatzeari, eurak osatzeari baino. Izan ere, ekimen instituzionalak heltzen ez diren lekuak betetzea du helburu. Horrela bada, gazteek zein helduek ez dute inguruetara jo behar, gaur egun asteburuetakoz zein bestelako jai egunetako ilunabarretan eta gauetan egiten duten erara, euskal musika, euskal kontzertuak edota euskal giroa bertan aurki dezaten.

– Bertoko merkataritza bultzatzeak dakartzan onura berberak ekartzen ditu bertan kultura eta aisia bultzatzeak.

– Inguruan izango duen enpresa munduarentzat ere, kultur eskaintza zabala emateko asmoa du. Eskaintza hori ahalik eta egokien izan dadin zenbait enpresarekin batera akordioak eta elkarlanean oinarritutako ekitaldiak antolatzeke asmoa dago.

– Antzokia sustatzeko Txorierriko jendearen partaidetza aurreikusten da. Xede horretarako, edonork izango du aukera hasiera-hasieratik parte hartzeko elkartearen egitura guztietan.

9.- SUSTATZAILEAK

– *TOTOAN*, Txorierriko Euskara Elkartearen Federazioa da lehenengo sustatzaile: Derioko *Tximintx*, Zamudioko *Lagatzu*, Lezamako *Zorritzketan* eta Larrabetzuko *Arrekikili* Euskara Elkartek.

– Hurrengo, Txorierriko Mankomunitatea.

– Ostein, banako euskaltzaleek ere proiektuan parte hartzeko aukera dute, diru, ideia, edo laguntza ekarpenekin.

– Onartuko da, baita ere, beste edozein ekarpen ekonomiko publiko edo pribatu.

10.- BASERRI ANTZOKIA FUNDAZIOA

“Baserri Antzokia” ekimena –artean argitu bezala- Totoan Txorierriko Euskara Elkartearen Federazioarena da, eta helburu nagusia euskara eta euskal kultura sustatzea.

Federazioak ideia hau Derioko udalari aurkeztu zion eta honek hasieratik onartu eta lankidetzarako konpromisoa hartu zuen, eraikina egiteko orubea lagata. Orube hori lagatzearekin batera Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak proiektuan parte hartzea adostu zen.

Proiektua mamitu eta taxutu zenean, “Baserri Antzokia” ize-neko fundazioa sortzea hobetsi zen, formula horrek ondoen ahalbidetzen duelako administrazio publikoaren eta ekimen pribatuaren arteko kooperazio eta elkarlana.

Bestalde, Baserri Antzokia proiektua errentagarria eta autofinantzatua, baina irabazi asmorik gabea, izango dela kontuan hartuta eta, era berean, bai bere jardueran bai bere agintean-organoean Txorierriko gizarte osoa (pertsonek, elkarteak, enpresak eta erakundeak) integratzeko asmoa eta gogoia dela aintzat harturik “fundazio” formula hobetsi zen egokiena delakoan. Hain zuzen ere, horregatik jarri zen martxan BASERRI ANTZOKIA FUNDAZIOA, hurrengo helburu nagusiarekin:

Txorierrin Euskara eta euskal kultura sustatzea, euskal giroa berpiztea, ohiturak eta ekanduak ezagutaraztea, kultur ekintza euskaldunak bultzatzea, euskal elkarte eta euskaltzale guztien indarrak batzea eta euskararen erabilera sendotzea eta areagotzea; horretarako, kalitate handiko ostalaritza, dibulgazioa eta kultur zerbitzuak eskainiko dituen “baserri” itxurako gunek bat eraikiz.

11.- PATRONATUA

Patronatua, gutxienez 7 eta gehienez 9 kidez osatuta egongo da:

- Mankomunitateak proposaturikoak: 2 kide.
- Euskara elkarteek proposatutakoak: 2 kide
- Sortzaileak eta biziartekoak: 3 kide.
- Zabalik uzten da enpresek patronatuan parte hartze-ko aukera, eta hala badagokie, bi kide izendatu ahal izango dituzte.

12.- KIDE MOTAK ETA ESKAINITAKO ZERBITZUAK

Hainbat kide mota ezarri dira fundaziorako, euren ezaugarrien eta ekarpen ekonomikoen arabera. Kide mota bakoitzari zenbait zerbitzu eta abantaila esleitu zaizkio Baserri Antzokia Fundazioarekin duten harremanaren arabera.

12.1.- KIDE MOTAK

Kide partikularra (40€ urteko)

Komertzio laguna (150€ urteko)

Enpresa laguna (300€ urteko)

Elkarte laguna (300€ urteko)

Bazkide handia (3.000€ urteko)

Kide estrategikoa

12.2.- ABANTAILAK

Abantaila fiskalak.

Txartela.

Urteko kideen bazkaria.

Beherapenak.

Sarrerak

Komertzio eta enpresentzako erakusgarri bereizlea.

Markaren presentzia Baseri Antzokian bertan (Panelak, adreiluak...)

Bilera gelen erabilera.

Txokoen erabilera.

Baseri Antzokia osotasunean ospakizunetarako eta modu bakarrean erabiltzeko aukera

Aipamena Aikor aldizkarian.

Publizitatea Aikor aldizkarian.

Aipamena Lan Txorierra enpresa urtekarian.

Publizitatea Lan Txorierra enpresa urtekarian.

Baseri Antzokiaren irudi korporatiboa erabiltzea.

Publizitatea Baseri Antzokian bertan.

Loturak edo estekak Fundazioaren web orrian.

13.- PROIEKTUAREN BEHARRIZANAK

Fundazioak pertsona partikularren, elkarteen, enpresen eta instituzioen laguntza eta ekarpen ekonomikoak behar ditu, eta zeregin horretan dihardu. Baina, horrezaz gain, Baseri Antzokia eraikitzeak dakartzan kostuei (1,5 M€ inguru) aurre egiteko KIDE ESTRATEGIKOAK bilatzea erabaki du ahal duten neurrian eta moduan lagun eta parte har dezaten.

Helburu horrekin, Bizkaian erreferente diren zenbait entitatetara zuzentzen ari gara, proiektuan parte hartzeko euren prestutasuna adieraz diezaguten eta, era berean, zer modutan izan litekeen bideragarri parte hartze hori proposa diezaguten .

Finean, artikuluko sorburuan aipatura itzuliz, baiezza deza-kegu euskara ikasi gero erabiltzeko paradigmatic, erabiliz ikasten da dioenera aldatzeko tresna emankor bezain eraginkorra izango dela TXORIERRIKO BASERRI ANTZOKIA. Hala izan dadila hurrengo ehun urteetan.

Juan Luis Goikoetxea Arrieta.